

Unai Telleria Etxeberria

D maila • Aipamena

Kaixo! Ni Unai Telleria naiz, 2004ko ekainaren 23an jaio nintzen, 12 urte ditut eta Zegaman bizi naiz.

Lehen Hezkuntza Zegamako Aitxuri Herri Eskolan egin nuen eta, gaur egun, Beasaingo Loinazpe Institutuan DBH 1. mailan ari naiz ikasketak egiten.

Nire zaletasunak futbola, ehiza eta perretxikoak biltzea dira. Pozik nago sari hau irabazteagatik eta ea aurrerantzean ere gehiago lortzen ditudan!



KAPONATA

Lehenik eta behin, neure burua aurkeztuko dizuet. Ni, Kaponata oiloa naiz, Ataungo San Gregorio auzoan dagoen "Bengoetxe" baserri zaharrean jaio eta bizi izandakoa. Gaur egun baserri horrek itxura txarra duen arren, bere garaian presentzi ederra zuen. Munduatetarrak bizi ziren bertan: Demetrio eta Anttoni senar emazteak. Asteburuetan, seme-alabak bisitan etortzen ziren beraien munstro txikiekin. Hauek askotan, arrautzak jasotzeko aitzakiarekin, guregana etortzen ziren ikuilura eta guri lumak kentzen zizkiguten.

Gure haurtzaroa pozik igaro genuen, baina denborarekin gure jabeak adinean aurrera joan ziren. Goiz batean, behiak jezten ari zirela, oiloak saltzeko asmoa zutela entzun nion bikoteari.

Gau horretan ez nuen lorik egin, geure etorkizuna kolokan baitzegoen. Hurrengo egunean kaiola sartu gintuzten 5 oilo estu-estu eta Ordiziara eramán gintuzten Land Roberrean. Han zegoen jende pila! Merkatua ospatzen zen. Eskerrak Anttonik manta bat jarri zuen lurrean, gure kaiolaren azpian eta noski, jan eta edana ere bai. Jende asko etorri zen gutaz galdezka, erosteko asmoz, baina bazirudien diru gehiegi eskatzen zutela guregatik.

Azkenean, Zegamako emakume batek ni aukeratu ninduen etxera eramateko. Nire etxe berria Zegamako ikastola izan zen. Mila andereñoa zen eta laborategian, eskeleto ondoan, egurrezko kaxa batean jarri ninduten. Munstro txiki haiek, hasieran burla egiten bazidaten ere, azkenerako nire lagunak izatera iritsi ziren.

Bi urte eder igaro nituen bertan. Ondoren, andereño ile gorridunaren gurasoen baserrira eramán ninduten, Sagastira. Urte lasaiak izan ziren. Mila, astebururo etortzen zitzaidan bisitan bere seme-alabekin.

Udazkeneko egun batean, San Martin egunean urtero ospatzen den feriara eraman ninduten euskal oiloen lehiaketara. Lehenengo saria eman zidaten eta nire jabeak gustura itzuli ziren etxera. Gabonetan Ordiziako merkatu madarikatu hartara eraman ninduten eta berriro ere Eusko-Label saria irabazi nuen. Handik aurrera, nire argazkia labeldun etiketetan agertu zen.

Denbora pasa ahala, geroz eta nekatuago sentitzen nintzen, urteen pisua geroz eta handiagoa zen. Pixkanaka itzaltzen ari nintzen, baina arro nengoen izan nuen bizitzarekin eta hiltzeak ez ninduen beldurtzen.

Ekaineko San Juan bezperan, plazan sua piztearekin batera, nire biziaren sua itzali zen...